



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZAK (LEA/AVC) LEHIAREN DEFENTSARI BURUZKO LEGEA (UZTAILAREN 3KO 15/2007) ALDATZEKO LEGE-AURREPROIEKTUAREN ZIRIBORRORI ENTZUNALDI ETA JENDAURREKO INFORMAZIOAREN IZAPIDEAN EGINDAKO ALEGAZIOAK

Aurkibidea:

I. LEHIAREN DEFENTSARI BURUZKO LEGEA (UZTAILAREN 3KO 15/2007) ALDATZEKO LEGE-AURREPROIEKTUARI EGINDAKO ALEGAZIOAK	2
1. Espainiako lehia babesteko sistemari dagokionez	2
2. Kontzentrazio ekonomikoak kontrolatzeko prozedurari dagokionez.	4
3. Laguntza publikoei dagokienez	4
4. EBFTren 101. eta 102. artikuluen aplikazioari dagokionez	5
5. Jurisdikzio-organoekiko lankidetzari dagokionez	5
II. LEHIAREN EUSKAL KONTSEILUAREN EBAZPENA	6

Osoko bilkura:

Alba Urresola Clavero, presidentea
Rafael Iturriaga Nieva, kontseilukidea
Enara Venturini Álvarez, kontseilukidea
Ainara Herce San Martín, idazkaria

Gai Ekonomikoen eta Eraldaketa Digitalaren Ministerioko Politika Ekonomikoko Zuzendaritza Nagusiak entzunaldi eta jendaurreko informazioaren izapidea abiarazi du Lehiaren Defentsari buruzko Legea (uztailaren 3ko 15/2007) aldatzeko lege-aurreproiekturako (aurrerantzean, «lege-aurreproiektua»). Izapide horren amaieradata 2020ko irailaren 15a da.

Lehiaren Euskal Kontseiluak (aurrerantzean, LEK), goian adieraziko osaerarekin, 2020ko irailaren 15ean eginiko bileran onetsi zuen alegazio hauek egitea Lehiaren Defentsari buruzko Legea (uztailaren 3ko 15/2007) aldatzeko lege-aurreproiektuari, entzunaldi eta jendaurreko informazioaren izapidean.



I. LEHIAREN DEFENTSARI BURUZKO LEGEA (UZTAILAREN 3KO 15/2007) ALDATZEKO LEGE-AURREPROIEKTUARI EGINDAKO ALEGAZIOAK

1. Espainiako lehia babesteko sistemari dagokionez

1. Lege-aurreproiektuaren hitzaurrean esaten denez, «Europar Batasunak benetako aplikazio-espazio komun bat eskatzen du hala Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren (aurrerantzean, EBFT) 101. eta 102. artikuluentzat nola lehiaren arloko zuzenbide nazionalarentzat, lehiaren agintaritza nazionalak guztiz eraginkorrak izan daitezen». Hala da, agintaritzen arteko disfuntzioak saihestu nahi dira Zuzentarauaren bidez, eta espiritu hori islatu behar du Lehiaren Defentsari buruzko Legearen testu berriak ere. Testu horretan «Espainian lehia defendatzeko sistema» aipatzen da, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak (aurrerantzean, CNMC) eta lehiaren agintaritza autonomikoen osatutakoa. Alabaina, testuan ez da sistema hori arautzen.

2. Ildo horretan, Lehiaren Defentsari buruzko Legearen (uztailaren 3ko 15/2007; aurrerantzean, LDL) 8. xedapen gehigarria indargabetzea proposatzen dugu, eta legearen artikulatuan espresuki jasotzea CNMCren eta/edo lehiaren agintaritza autonomikoen eskumenak. Proposamen horrek are zentzu handiagoa du 2013an CNMCren legea onetsi zenetik. Izan ere, erakunde horrentzako berezko araudi batean jaso zituen estatu mailan lehiaz arduratzen den erakundeari (CNMC) dagozkion arau guztiak.

3. Horregatik, Lehiaren Defentsaren arloan Estatuaren eta Autonomia Erkidegoen eskumenak koordinatzeko Legea (otsailaren 21eko 1/2002) onartu zenetik 18 urte igaro direnean, Lege hori LDLn txertatzea proposatzen dugu (II. tituluan, II. kapituluan, gaur egun edukirik gabekoa, zuzenean 1/2002 Legea igortzen baitu). Horrela, lege-mailako arau bakar batean bateratuko litzateke lehiaren alorreko Espainiako araudi guztia eta, gainera, 1/2002 Legean definitutako koordinazio-irizpideak hobetuko lirateke. Gure ustez, horrela bakarrik lortuko da Espainian lehia defendatzeko sistema operatibo bat izatea.

4. Gainera, lehia defendatzeko organoak sortu eta martxan jarri zirenetik 15 urte baino gehiago joan direnean, koordinazio-lege horren edukia zaharkituta geratu da. Zaharkitze hori areagotu baino ez du egiten merkatuen errealitateak, gero eta nazioartekoagoak, globalagoak eta digitalagoak direlako.



5. Lehiaren defentsarekin lotutako gai bat autonomia-erkidegoko agintaritzari edo CNMCri dagokion ebazteko, lurraldetasunaren irizpidea zehazten du legeak, hau da, jarduera baten ondoreak dena delako autonomia-erkidegoan izatea guztiz. Konexio-puntu horren ondorioz, jarduera batek ondoreak baditu autonomia-erkidego batetik kanpo, oso ehuneko txikian bada ere, CNMCren eskumena dira instrukzioa eta ebazpena. Eskumenak esleitzeko modu horrek ez du zentzurik gaur egun: alde batetik, Europar eskumen konkurrenteen irizpidea aplikatzen da, eta estatuetako agintaritzek EBFTren 101. eta 102. artikulua aplikatuz Europako Batzordearen eskumena ukatu gabe; bestetik, lurraldetasunaren irizpide horrek edukirik gabe utz ditzake agintaritzak autonomikoak, mundu global honetan biziki zaila baita lege kanpoko jarduera baten ondoreak lurralde jakin batera mugatzea bakarrik.

6. Konstituzio Auzitegiaren doktrina auzitan jarri gabe, uste dugu atalase edo ehuneko batzuk ezar daitezkeela, hots, irizpide objektibo batzuk, autonomia-erkidegoz gaindiko eragin-maila zehazteko eta erabakitzeko zer agintaritzak dagoen auzi batez arduratzeko posizioz onenean, arrazionaltasunaren eta erakundearen eraginkortasunaren irizpideen arabera.

7. Gainera, 1/2002 Legeak lehiaren defentsako alderdiak baino ez ditu arautzen, hau da, LDLren 1., 2. eta 3. artikulua aplikatuta zehapen-prozedura gisa izapidetzen diren espedienteak bakarrik. Alabaina, lehiaren agintaritzek mandatu zabalagoa dute gaur, hala nola lehia sustatzeko gaitasunak (*advocacy*). Horietan, ez dago koordinazio-irizpiderik lege ezarrita, eta ez dira analogikoki aplikatzen lehiaren defentsaren arloan daudenak. Disfuntzionaltasun horrek bikoiztasunak eta herritarrentzako segurtasun juridikoaren falta eragiten ditu.

8. Ezarritako koordinazio-mekanismoei dagokienez, 1/2002 Legearen 5.4 artikulua nahitaezko txostenaren izapidea ezartzen du. Ez da loteslea, eta 20 eguneko epean eman behar du autonomia-erkidegoko organoak CNMCk eskatuta, LDLren 1., 2. eta 3. artikuluetan aurreikusitako jokaerak zehazteko CNMCk berak formulatutako pleguari dagokionez, jokaera horren ondoreak autonomia-erkidegoz gaindiko esparru batekoak edo merkatu nazional osokoak izanda ere dena delako autonomia-erkidegoaren lurraldeari modu nabarmenean eragiten badiote. Izapide bera arautzen da kontzentrazioen kontrolerako prozeduraren bigarren faserako LDLren 58.1 artikulua bigarren paragrafoan. Aurreikuspen horiek nolabaiteko aurrerapausoa izango lirarteke beteko balira. Alabaina, Lehiaren Euskal Agintaritzaren kasuan bederen, tresna hori ez da inoiz aplikatu, «eragin nabarmena» irizpidearen zehaztugabetasuna dela eta.



2. Kontzentrazio ekonomikoak kontrolatzeko prozedurari dagokionez.

- 9.** LDLren 57. artikulua kontzentrazio-eragiketa baten instrukzioa eta ebazpena arautzen ditu lehen fasean, lehiaren defentsarako agintari autonomikoei inolako eginkizunik esleitu gabe.
- 10.** Agintari autonomikoen bigarren faseko instrukzio eta ebazpenean soilik har dezakete parte kontzentrazioaren kontrolean, baldin eta kontzentrazio horrek eragin nabarmena badu autonomia-erkidego jakin baten lurraldean. Kasu horietan, Ikerketa Zuzendaritzak dagokion txostena eskatuko dio, loteslea izango ez dena, gaiak ukitutako autonomia-erkidego horri, LDLren 58. artikuluan eta Lehiaren defentsarako Araudiaren 65. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.
- 11.** Kontzentrazio-eragiketa batek autonomia-erkidego jakin baten eremuan duen eragina eragiketaren ebazpen fasearen menpe ez dagoela jotzen da; beraz, kasuan kasuko agintaritza autonomikoari eskumena eman beharko litzaioke txostena prozeduraren bi faseetan eman ahal izateko. Nabarmendu behar da txosten hori agintaritza autonomikoari eskatu behar zaiola, eta ez modu generikoan autonomia-erkidegoari.

3. Laguntza publikoei dagokienez

- 12.** Laguntza publikoei buruz LDLren 11. artikuluan jasotako araei dagokienez, Europako Batzordeari dagokio laguntza horiek aztertzea. Alabaina, LDLk CNMCri esleitzen dio Espainiako laguntzen inguruko txosten bat egitea urtean.
- 13.** Kontuan izanik autonomia-erkidegoetako lehiaren agintaritzak arautzeko araudietan ere laguntza publikoei buruzko eskumenak jasotzen direla, uste dugu agintaritza autonomiko bakoitzak bere lurraldeari dagokion informazioa eman beharko lukeela, indarrean dagoen sistema deszentralizatuarekin bat. Hortaz, gaur egun LDLren 11.5 artikuluan aurreikusitakoa nahitaezkoa izatea proposatzen dugu, eta LDLren 11.2 artikuluan txertatzea.



4. EBFTren 101. eta 102. artikuluen aplikazioari dagokionez

- 14.** EBko zuzenbidearen ikuspuntutik, ez dago inolako oztoporik lehiaren agintaritza autonomikoek EBFTren 101. eta 102. artikulua aplikatzeko. Izatez, Alemanian espresuki aitortzen zaie eskumen hori herrialdea osatzen duten estatu federaletako (*Länder*) agintaritzei.
- 15.** Gure ustez, Espainiako lehiaren defentsarako sistemak Europako eredurantz jo beharko luke, hots, eskumenak Europako erakundeen eta estatuetakoen artean banatzera, 1/2003 Erregelamenduan arautzen den moduan.
- 16.** Gainera, ECN+ Zuzentarauaren espiritua da, hain zuzen, lehiaren zuzenbidea aplikatzean zorrotasun berarekin jardutea EB guztian. Herrialde deszentralizatueta lehiaren agintaritza autonomikoak kanpoan uztea Zuzentarauaren xedearen kontra joatea litzateke.

5. Jurisdikzio-organoekiko lankidetzari dagokionez

- 17.** LDLren 16. artikulua jurisdikzio-organoekiko lankidetzari arautzen du, sistema asimetriko baten bidez. Horrela, CNMCren kasuan, arautzen da EBFTren 101. eta 102. artikuluen edo, dagokionean, LDLren 1. eta 2.aren aplikazioko auzi bat argitzen duen edozein prozedura judizialean esku har dezakeela CNMCk, LDLk zein Prozedura Zibilaren Legeak jurisdikzio-organoei informatzeko betebeharrak batzuk ezartzen baitizkiete. Alabaina, ez da horrelakorik aurreikusten lehiaren agintaritza autonomikoen kasurako.
- 18.** Horren ondorioz, ia desagertuta geratzen dira lehiaren agintaritza autonomikoen *amicus curiae* gaitasunak. Gainera, 16.3 artikuluko aurreikuspena («Lehiaren Batzorde Nazionalak informazioa bideratzeko beharrezko neurriak hartuko ditu, epai horiek autonomia-erkidegoetako organoei jakinarazteko») ez da garatu eta, ondorioz, lehiaren agintaritza autonomiko batek bere kabuz prozedura judizial batean parte hartzeko gaitasuna ia guztiz bideraetzina da.
- 19.** Ondorioz, LDLn zein Prozedura Zibilaren Legean beharrezko diren aldaketak egitea proposatzen dugu, jurisdikzio-organoekiko lankidetzari eraginkorra izan dadin.



II. LEHIAREN EUSKAL KONTSEILUAREN EBAZPENA

20. Ondorengo izapide eta ekarpenen kalterik gabe, Lehiaren Euskal Kontseiluak ebazten du:

LEHENA.- Lehiaren Defentsari buruzko Legea (uztailaren 3ko 15/2007) aldatzeko lege-aurreproiektuari egindako alegazioak onestea, aurreko I. atalean jasotakoak.

BIGARRENA.- Alegazio horiek epe barruan eta forman aurkeztea Gai Ekonomikoen eta Eraldaketa Digitalaren Ministerioko Politika Ekonomikoko Zuzendaritza Nagusiaren aurrean.